

ARRANTZALEA IZAN NAHI DUT

Leire Aranbarri

Azpeitia, 12 urte

Ni kaia eta hondartza duen herri ttiki batean bizi naiz. Hamabi urte dauzkat eta Jaione dut izena. Ttikia banaiz ere, denek jenio apur bat dudala diote. Herriko gehientsuenek ezagutzen naute, gaizto samarra naizelako agian, bihurrikeria asko egiten baititut. Baina, berdin dio. Beti jolasean nabil nire lagunekin, eta bromak egitea asko gustatzen zait.

Jon izeneko anaia bihurri bat ere badut, hamar urtekoa (ni baino bi urte ttikiagoa). Beti etxe atariko parkean dabil jolasean bere lagunekin, eta esaten dutenez nire antz izugarria du. Baina, behingoz, has nadin kontatzen hona ekarri nauen istorioa.

Bizitzan zehar, ume guztiok edo pertsona gehientsuenok nahi berezi bat izaten dugu. Eta nik, beste ume guztiek bezalatsu, badut nire naia ere:

“ARRANTZALEA IZAN NAHI DUT”.

Betidanik izan dut antsia hori. Eta ba al dakizue zergatik dudan irrika hori? Ba nire aita eta aitona arrantzaleak direlako. Horrez gain, itsasoan gertatu ohi diren abeturak eta bidaiak atsegin zaizkit. Eta inork ez dakien beste arrazoi batengatik ere bai, txalupak ur gainean egiten dituen balantzek urdailean zirrara berezia eragiten didatelako.

Nire aita itsasontzi txiki bateko kapitaina da, eta bere irteerak hilabetekoak izaten dira gutxi-gorabehera, Azores edo Kanarietako itsasoetara.

Behin baino gehiagotan esan diot aitari arrantzale izan nahi dudala.

– Badakit Jaione –erantzuten dit irrifar batez, eta amari keinu konplizea eginez.

– Eta eramango al nauzu egunen batean zurekin batera itsaso zabalera egun batzuk pasatzera?

– Jaione, oraindik txikiegia zara, ur putzu handi horretan gertatzen diren arazoak jasateko.

– Gezurra!

– Zu baino lehenago joango naiz ni! –zirika egingen dit anaiak –Mutila naizelako!

– Matxista! –erantzuten diot nik haserre.

Beti gara berdin, baina nik badakit egunen batean aitak berarekin itsasora eramango nauela.

Udaberriko egun horietako bat zen. Ama eta Jon, nire neba, Donostiara joanak ziren asteburu osoa aiton-amonak bisitatzera. Eta aita eta biok bakarrik geratu ginen.

Biok bakarrik eta, ez zitzaidan ezer hoberik bururatu proposamen hau egitea baino. Aitak itsasontzia libre zuenez, ea itsasora hiru egun haiek pasatzera aterako ginen galdetu nion.

Ez dakit zergatik, baina baietza eman zidan. Gauza bakarra eskatu zidan ordea. Ezer ez aipatzeko ez amari, ez anaiari, ez eta aitonari ere. Nik, harriturik, baietza adierazi nion buruaz.

Hartu beharreko tresna eta arropa guzia hartu, eta han abiatu ginen kai alderuntz. Itsasontzia prestatu eta berehala, urruntzen hasi ginen kaio zalapartariengandik iheska.

Aitak gauza asko eta asko irakatsi zizkidan: arrainak zein tresnarekin arrantzatu, non bota sarea, itsasontziaren tresneria (sonarra, radarra,...), olagarroak nola harrapatu, non zeuden proa eta popa...

Lehen egunean, ez nuen gauza askorik egiteko astirik izan, baina bigarreneko jakin beharrekoak banekizkien. Beno, garrantzitsuenak behintzat, bai.

Egun haiek bizkor baino bizkorrago pasa zitzaizkidan. Eta ba al dakizue zer berezia ikasi nuen ur putzu erraldoi hartan? Itsasoak kolore asko dituela. Urdina bakarrik ez dela, ez; orlegia ere izan daitekeela, edo urdin argia, iluna, beltza... Eta honekin batera, itsasoak sekretu asko eta asko dauzkala gordeta.

Etxera itzultitakoan, amak eta Ionek gauza asko zeuzkaten kontatzeko. Geuk ere bai, baina ezin ezer kontatu.

– Jaione, esnatuko al zara? –entzun nuen nire belarri ttiki eta zabaletatik.

– Zer, bai, zera...

– Telebista ikusi nahi dut! –nire neba ondotik.

Orduan konturatu nintzen besaulkian loak hartu ninduela. Eskuetan “Itsasoa eta bere sekre-

tuak” izeneko liburua neukan. Hau zoritxarra!
Udaberriko asteburu zoragarri hura amets hutsa
besterik ez zen izan.

Zazpi hilabete pasa badira ere, gura berbera dau-
kat oraindik, txiklea zapataren zolura itsatsita beza-
la. Aitari galdera egiten diodanean ordea bere
erantzuna desberdina da.

– Datorren udaberrian eramango zaitut, Jaione.

Eta ni datorren udaberriaren zain geratu naiz
egunak zenbatzen.